

Berrehun buelta Pirineoari

PIRINEOETAKO leku ezezagunen bati buruzko argibiderik eskatzen didatenean, hasi egiten naiz Luis Alejosekin kontaktuan jar daitezen esanez. Urte asko bait darama Luisen Pirineoa ibiltzen, bazter guztia zehazkiro ezagutuz eta beti zer-bait gehiago bilatu asmoz. Horrexegatik eskatu diogu oraingoan Pirineoari oso-osorik dedikatzen diogun Pyrenaicako 200. ale berezi honen oinarritzko artikulua presta dezan.

Ez da erreza bera bezalako lagunik aurkitzea mendizerraren aterpeak bisitzatzeko. Irakur ezazue astiro bere artikulua. Baino hori ez da gure bidaia birtualaren hasiera baino, zeren ale hone-tan irakitan dagoen Pirineo bat ikuspuntu berri eta desberdinatik deskubritzeko beste kolaborazio aparteko askotaz ere gozatu ahal izango bait dugu. Luxuzko idazle eta argazkilari-lantaldet batek lagunduko gaitu, batzu ohizkoak eta beste batzu, bereziki aukeratuak okasio honetarako. Adibidez, bizirik irauten duten pirineoleta-sunaren munstroetariko bat den Louis Audoubert-en iruzkinak eta eritziek entzungo ditugu. Edo utzi dezagun Julio Villarrek astiro eta lasai hitzegintz dezan, Pirineoetako marinela horrek, zeinak Pirineoa bere herri guztien aberria dela ondo baino hobeto badaki ere, batzutan, hainbeste maitatzen duenez, berena dela pentsatzen bait du. Edo beste bazter bat erakuts diezagula Miguel Angulok, bide ezezagunak eta inguru ezkutuak deskubritzen, fotografiatzen eta kartografiatzen jarraitzen duen bitartean. Edo berba egin dezagun une batez vivac batean Claude Dendaletcherekin, euskal mendiaren izatasunean eta zibilizazioan gero eta gehiago sakondu, mugarrak gabeko mundu baten

aberastasun unibertsalaren bereiztezinezko atala dela gero eta gehiago konturatzen ari dena.

Aukeratu ahal ditugu igoerak, zeharkaldiak, eskaladak, gogor-pen historikoak, abenturak... eta mendizerraren ikuspen berria, begiratuz maila guztia behetik gorantz, Bizkaiko golkotik Aneto-raino eta goitik beherantz, Anetotik Mediterraneoraino. ¡Beste probokazio bat mendi-bildumazaleentzat!

Nik ez dakit zer esan Pirineoari buruz berau grinaz maite duzuen askori, eta egia esan, ez zait ezer ere bururatzen, orain-dik ez bait naiz zuzperta Iñurrategitarren zaharrenaren heriotzari buruzko berria jaso ondoren. Beraz eman egiten diot hizpidea Ramón de Basterri bilbotarrari, mendiak xarmatua izan zen beste bat:

"Pirineo beti; gure mendizerra betirako
Betirako, mugan gainetik salto egiten duen pilota
Munduko menditarrek eskua eman diezaioketu elkarri
Munduko menditarrek mazoneria gara
Gure arimak ehuntzen dituzte iraunazarpenak eta nabarmen
izan nahiak".

"Pirineo guztian dago adore bat, dago pultsu bat, betertz bat
Bizitzari aurrerantz ekitea da afan piriniarra
Ba dago misioa Pirineoak elkartzen dituen arraza guztientzat
Eta zera da, Mendebaldearen erritmoa luzatzea, bere giza
ohartasuna".

Doscientas vueltas al Pirineo

CUANDO me piden información sobre algún rincón poco conocido de los Pirineos, empiezo por intentar ponerles en contacto con Luis Alejos. No en vano Luis lleva muchos años pateándolo a fondo con un espíritu de ir siempre buscando más. Por eso le hemos pedido ahora que prepare el artículo de fondo de este número especial de Pyrenaica, el 200, que dedicamos monográficamente al Pirineo.

No es fácil encontrar otro acompañante como él para visitar los refugios de la cordillera. Leedlo despacio. Pero eso es sólo el comienzo de nuestro viaje virtual, porque podremos disfrutar en este número de otras muchas colaboraciones excepcionales para descubrir, desde distintos ángulos originales, un Pirineo en ebullición. Nos acompañará un plantel de lujo de escritores y fotógrafos, algunos habituales y otros especiales para esta ocasión. Por ejemplo, oiremos los comentarios y opiniones de Louis Andoubert, uno de los monstruos vivos del pirineísmo. O dejemos que hable despacio y relajado Julio Villar, ese marinero de los Pirineos, que sabe muy bien que el Pirineo es la patria de todos sus pueblos, pero le quiere tanto que algunas veces piensa que es suyo. O que nos enseñe otro rincón Miguel Angulo, que sigue descubriendo, fotografiando y cartografiando rutas desconocidas y parajes secretos. O charlemos un rato en un vivac con Claude Dendaletche, que cuanto más ahonda en la naturaleza y la civilización de la montaña vasca más se da cuen-

ta de que forma parte inseparable de la riqueza universal de un mundo sin fronteras.

Podemos elegir ascensiones, travesías, escaladas, recuerdos históricos, aventuras... y una original visión de la cordillera contemplando todos los peldáños de abajo arriba, desde el golfo de Bizkaia hasta el Aneto y de arriba abajo, desde el Aneto hasta el Mediterráneo. ¡Otra provocación para los coleccionistas de montes!

Yo no sé qué decir del Pirineo a muchos que lo amáis con pasión, y la verdad es que no se me ocurre nada, porque todavía no me he recuperado de la noticia de la pérdida del mayor de los Iñurrategi. Así que cedo la palabra al bilbaíno Ramón de Basterri, que también él se dejó seducir por la montaña:

"El Pirineo siempre; por siempre nuestra cordillera
Por siempre, la pelota que brinca sobre la frontera
Los montañeses del mundo podemos darnos la mano
Los montañeses del mundo somos masonería
Nuestras almas las tejen conservación y altanería".

"En todo el Pirineo hay un ánimo, hay un pulso, un semblante
El afán pirenaico es acometer la vida hacia adelante
Hay misión para todas las razas que el Pirineo hermana
Es prolongar el ritmo de Occidente, su vigilancia humana".

Txomin Uriarte